

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako Udalbatzaren 2023ko martxoaren 8ko Erabakiaren laburpena. Haren bidez, deialdi publikoa egiten da administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko, 2023ko ekitaldian obra txikiak egin ditzaten**

BDNS(Identif.): 681844

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681844>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen hain zuzen: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira Iruña Okako udalerriko administrazio batzarrak.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honetako dirulaguntza jasoko dezakete udalerrri honetako kontzejuen eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuekin loturiko programa hauek:

a) Oinarrizko azpiegiturak (ura, saneamendua, argiteria, bide publikoak, etab.), eraikin publikoak eta berdeguneak gauzatu, mantendu eta hobetzeko obrak. Horren barruan sartzen dira Arabako Foru Aldundiak "Obra txikiak" programaren bitartez finantzatutako lanak edo inbertsioak.

b) Altzari publikoak eta ekipamendua eskuratzea, mantentzea edo hobetzea. Gainera, barne egongo dira erakunde publikoek diruz lagundutako programen bitartez udalak gauzaturako obren materialak edo bestelako jarduketa kostuak.

c) Kanpo uzten dira kontzejuaren beraren funtzionamendu gastu arruntak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako Udalbatzak 2023ko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez onetsiak. Udalaren web orrian argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Gehenez 55.000,00 euroko aurrekontu esleipena dago jasota 2023ko ekitaldirako udal aurrekontuaren 943.734.000 partidan, dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskabideak eta laugarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko abenduaren 15era arteko epea izango da.

Iruña Oka, 2023ko martxoaren 15a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**